

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Pirinioetako Lan Elkartea Partzuergoak zuzendari lanpostua betetzeko deialdia egin du

2015eko urtarrilaren 31n amaitzen da hautagaitzak aurkezteko epea

Miércoles, 31 de diciembre de 2014

[Pirinioetako Lan Elkartea](#) (PLE) Partzuergoak **zuzendari lanpostua betetzeko** deialdia egin du. Kontratu mugagabea eskaintzan da, sei hilabeteko frogaldiarekin eta urteko 60.000 €-ko ordainsari gordinarekin.

Lan-jarduera Partzuergoaren egoitzan gauzatuko da, Jacan (Aragoi); Espainia-Frantzia-Andorra Lurralde Lankidetzako 2014-2020 aldirako Programa Operatiboaren baitan, mugaz haraindiko lankidetzaproiektuak proposatzea eta dinamizatzea izango da zuzendariaren eginkizuna; baita PLE Partzuergoaren mendeko beste erakunde batzuen baitan ere, hala nola, Klima-aldaketaren Pirinioetako Behatokia, arloko batzordeak, etab.

Izangaiak gaztelera eta frantsesa menderatu behar ditu eta erraztasunez hitz egiteko gai izan behar da; horrez gain, goi-mailako ikasketen titulua eduki eta esperientzia izan behar du europar funtsen, lankidetzakomplexuen eta proiektu publiko edo mistoen kudeaketan.

Interesdunek erakundearen lehendakariari, Andorrako Printzerriko Atzerri Gaietarako ministroari, bidali behar diote hautagaitza, [pere\\_roquet@govern.ad](mailto:pere_roquet@govern.ad) helbide elektronikora, 2015eko urtarrilaren 31 baino lehen.

Eskabideaz gain, hautagaiek honakoak aurkeztu behar dituzte: motibazio-gutuna – gaztelera eta frantsesez idatzita –, *curriculum vitae*a europar formatuan eta Nortasun Agiri Nazionalaren, pasaportearen edo agiri nazional baliokidearen kopia soila.

Gogorarazi behar da Pirinioetako Lan Elkartea 1983an sortu zela Europako Kontseiluak bultzatuta, eta mendigunearen alde bietako zortzi eskualdek osatzen dutela:

espainiar lau eskualdek (Aragoi, Katalunia, Nafarroa eta Euskadi), frantziar hiruk (Akitania, Languedoc-Roussillon eta Midi-Pyrénées) eta Andorrako Printzerriak.

Jacan du egoitza eta, gaur egun, 12 langile eta 1,5 milioi € inguruko urteko aurrekontua dauka.

Eskualde guztietako ordezkariak osatutako exekuzio batzordeak zuzentzen du erakundea eta lehendakaritza txandakakoa da; 2013. urtetik 2015. urtera,